

## **Blanca de la Peñak Arabako Mugikortasun Partzuergoa sortzea jarri du legegintzaldiko erronka handi gisa**

*Iragarri duenez, agintaldi honetan hasiko dira N-124 errepidea Armiñon eta Berantevilla artean bikoizteko lanak*

*"Alavabuseko lineetako bidaiari kopurua % 74 hazi da, ekainean zerbitzuen % 100 berreskuratu genuenetik", azpimarratu du*

**Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 19a.-** Blanca de la Peña Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak gaur nabarmendu du Arabako Mugikortasun Partzuergoa sortzea dela legegintzaldiko erronka handietako bat, xedea baita baliabide eraginkorrak izatea ohiko bidaiariei txartelaren prezioan hobaria emateko eta elkarreragingarritasunean aurrera egiteko. De la Peñak hitzeman du hobetzen jarraituko duela foru garraioa, eta nabarmendu du eskariak % 74 egin duela gora, joan den ekainean zerbitzuen % 100 berreskuratu zenetik.

Era berean, bide azpiegiturei dagokienez, esan du lehentasuna izango dela segurtasunean aurrera egitea, eta horretarako, kontserbazioan eta mantentze lanetan egin beharreko inbertsioa indartuko da, eta proiektu integral berriak bultzatuko dira Errepideen Foru Sarea modernizatzeko, hala nola N-124 errepidea bikoiztea Armiñon eta Berantevilla artean. De la Peñak esan du legegintzaldi honetan hasiko direla proiektu hori gauzatzeko obrak.

Foru diputatu kargua hartu ondoren bere burua aurkezteko eta datozen hiru urteetan garatuko dituen politika publikoen ildo nagusiak azaltzeko De la Peñak Arabako Batzar Nagusietan egindako agerraldian eman du informazio hori. Politika horiek bi ardatzetan oinarrituko dira: mugikortasun jasangarri eta osasuntsua bultzatzea, foru garraio publikoa etengabe hobetuta, eta Arabako errepideen segurtasuna hobetzea, haiek behar bezala mantenduta eta zainduta eta modernizatuta.

Foru diputatuak defendatu du foru garraioak "funtsezko zerbitzu publiko"ko izaera duela Arabako herritarren mugikortasun beharrak asetzeko eta Arabako mugikortasun jasangarri eta osangarrian aurrera egiteko, eta azken urteotan Alavabuseko eta eskualdeko garraioaren lineak modernizatzeko eta hobetzeko egindako lana baloratu du. Modernizazioa eta hobekuntza, azpimarratu du; hau da, 2015-2019 aldirian ia % 40 igo da bidaiarien kopurua.

"Pandemiaren ondoriozko mugikortasun murrizketak, hezkuntza zentroen itxiera goiztiarra eta jarduera ekonomikoa moteltzea aurten eragozpen izango dira joera horrekin jarraitzeko, baina nabarmendu behar da eskaria suspertzen ari dela. Alavabuseko lineen erabiltzaileen kopurua % 74 hazi

da, ekainean zerbitzuen % 100 berreskuratu genuenetik, eta gaur egun % 75eko eskaera mailarekin lan egiten ari dira 2019ko datuekin alderatuta, eta hori garraio publikoko zerbitzu gehienetan erregistratutakoa baino ratio handiagoa da", azpimarratu du.

De la Peñaren iritziz, arabarrak "hala, positiboki erantzuten ari dira Alavabuseko zerbitzuak % 100 berreskuratzearen erabakiari. Era berean, ezarritako segurtasun neurriak kontuan izaten eta betetzen ari dira: maskara nahitaez erabili beharra; ahal dela BAT txartelaren bidez ordaintzea; garbitasuna, desinfekzioa eta aireztapena indartzea. Neurri horiek gure landagune txikietan bizi diren arabarrak zerbitzatzeko dituen eskualdeko garraioan ere badaude".

Datuak are hobeak dira zerbitzu honetan; izan ere, bidaiari kopuruak bere horretan jarraitzen du, eta, are gehiago, 2019an erregistratutakoak gainditzen ditu azken hilabeteetan.

### **Etengabeko hobekuntza**

Foru diputatuak "etengabeko hobekuntzako" estrategia bat aplikatzen jarraitzeko erronka hartu du bere gain, Arabako Mugikortasunaren Gida Plana burutuz; foru garraioa digitalizatuz; autobus/bizikleta intermodalitatea sustatuz, errazagoa izan dadin konbinatzea Alavabuseko foru lineak hiri arteko joan-etorrietarako eta bizikleta hiri mugikortasunerako, eta Arabako Mugikortasun Partzuergoa sortuz, egungo Arabako Mugikortasun Agintaritzatik abiatuta.

Azaldu duenez, funtsezkoa da erakunde hori sortzea, lurraldeko garraio operadoreen arteko koordinazioa indartzeko (Eusko Jaurlaritzza, Foru Aldundia eta Gasteizko Udala), BAT, BARIK eta MUGI txartelen elkarreragingarritasunean aurrera egiteko eta ohiko erabiltzaileei hobariak emateko. "Hobariak emango dira, adibidez, Gasteizera iristeko egunero eskualdeko garraioa eta Alavabus erabiltzen duten eta gero hirian tranbia edo Tuvisaren bidez mugitzen diren arabarrek txartel prezio hobeak izan ditzaten".

"Argi daukat Arabako Mugikortasun Partzuergoaren legegintzaldia izan behar duela, eta, hain zuzen ere, kargua neure gain hartu nuenetik, nire lehenengo bileretako bat Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailarekin izan da, besteak beste proiektu hori bultzatzeko eta hartan aurrera egiteko", gaineratu du.

Bestalde, Bide Azpiegituren arloan, "Errepideen Foru Sarearen segurtasuna" lehenetsi du. Neure egiten dut Javier Hurtado nire aurrekoaren konpromisoa, sinetsita segurtasunean inbertitzea giza bizitzetan inbertitzea dela eta, horregatik, gure lehenengo helburua izan behar da. Hiru tresna nagusi ditugu bide horretan aurrera egiteko, eta lehena da baliabide gehiago bideratu behar dela errepideak kontserbatzeko, eta gure asmoa da bikoiztea azken urteotan bide zoruak berritzeko eta indartzeko egon den batez besteko aurrekontua".

"Aurten lehen urratsa eman dugu, zoruak berritzeko 2 milioi euroko inbertsioa eginda, azken ekitaldietan baino % 33 gehiago", adierazi du.

Segurtasuna hobetzeko bigarren tresna, azaldu duenez, istripuak pilatzen diren tarteetan esku hartzea eta sarea irtenbide integralen bidez modernizatzea da. "Arabako Errepideen Plan Integralean lehentasunak eta denbora plangintza jasotzen dituzten proiektuak diseinatu eta gauzatzeaz ari gara. N-240 errepidearen proiektua amaitzen ari gara Legutio inguruan, bihurgune arriskutsuak eta sestra aldaketak kentzeko eta Elosurako sarbide segurua eskaintzeko. Errepide berria urte hau amaitu baino lehen irekiko zaio trafikoari".

"Eta A-625 errepidea Amurrioko industrialdeen eta Bizkaiarekiko mugaren artean hobetzeko, bihurtzeko arriskutsuak eta sestra aldaketak kentzeko, eta herri eta industrialdeetara sarbide segurua emateko obren erdi aldera iritsi gara, zeinak 2021. urtearen amaiera aldera bukatzeko aurreikusita baitaude. Gorbeialdeko eta Aiarako kuadrillentzako bi proiektu oso garrantzitsu dira, baita Araba osoarentzat ere, ia 28 milioi euroko inbertsioa egin baita", zehaztu du.

Haiei gehitu behar zaie Armiñongo AP-1 autobide zaharraren eta A-1 bidearen arteko trantsizioaren segurtasuna egokitu eta hobetzeko duela astebete hasi diren obrak. 350.000 euroko jarduna da, eta euriak eta hotzak ahalbidetzen badute, urtearen amaieran bukatuta egongo da.

Foru diputatuak honako hau ziurtatu du: "Oso ahalegin handia egiten ari gara obra publikoan inbertsioa mantentzeko, koronabirusaren krisia gorabehera, eta egiten jarraituko dugu, inbertsio publikoa funtsezkoa baita lurraldean jarduera ekonomikoari eta enpleguei eusteko hain une zailetan. Datorren urtean A-625 errepideko obrak amaituko ditugu, eta, zer aurrekontu baliabide daukagun, proiektu eta esku hartze berriak bultzatuko ditugu sarea modernizatzeko, zeharbideetako segurtasuna hobetzeko eta Zarataren aurkako Ekintza Plana garatzeko".

"Hartara, iragarri nahi dut legegintzaldi honetan, beste proiektu batzuen artean, N-124 errepidea Armiñon eta Berantevilla artean bikoizteko lanak lizitatu, adjudikatu eta hasiko ditugula. Proiektu honek duela urtebete Berantevilla eta Zanbrana artean bikoiztutako lehen tarte osatuko du", esan du.

Azkenik, adierazi du erakundeen arteko lankidetzaren delako Errepideen Foru Sarean segurtasuna hobetzeko hirugarren bidea: Espainiako Gobernuarekiko lankidetzaren, AP-1aren eta A-1aren arteko loturak areagotu eta hobetzeko, eta Arabako errepideetan Pobes eta Manzanosen geratzen diren azken bi trenbide pasaguneak kentzeko; Bizkaiko Foru Gobernuarekiko lankidetzaren, N-240 errepideko Ubideko bidegurutzaren hobetzeko, hain zuzen ere, probintziaren mugan. "Proiektu horietan lan egingo dugu, datozen hiru urteetan zehaztu ahal izan daitezen".